

ZUMAIENA – 2030 BASO MAGIKOA

HAUSNARKETA ETA ELKARLANERAKO ESPAZIO NATURALA

Zumaienan, gizarte eraldaketarako hezkuntza eredia garatzea dugu helburu. Horretarako, instituzio, entitate eta elkarrekin elkarlana sustatu eta bideratzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Hori horrela, eta gizarteko parte garen heinean, ingurukoekin eta elkarri entzun eta lagunduaz, proiektuak garatzen dihardugu gure egunerokoan.

Azken bi urteetan, eta kanpo espazioak haur eta gazteen ikaskuntza prozesuan duen garrantziaz konturaturik, ikastetxeko eredu pedagogikoa aberasten ari gara. Bestalde, gizarte bezala eta hamarkada honetan mundu mailan ezarritako GIH-ekin alineaturik ari gara egunerokoan eta helburu hauei forma aktiboan erantzutea dugu helburu.



“2030 BASO MAGIKOA, gizarte eragileentzat irekia egongo den espazioa izango da. Ikaskuntzarako, jolaserako, hausnarketarako, lanerako.... Espazioa”.

Aipatzen dugun modura, eraldaketa global bat egin nahi dugu. Eraldaketa horrek gure ikasle, familia, herriko eragile eta herritarrei eragitea dugularik helburu. GIH-ekin lerrokaturik, benetako eragin zuzena herrian izango duena. Haur eta gazteen heziketan benetako eraldaketa bat ezarri, 0-18 urte bitartean natura proiektu pedagogian barneratuz eta ikasleek lortu beharreko gaitasun eta baloreei indarra emanaz (**Energiaren gestioan, mugikortasunean, generoan, klima babesteko ekintzetan, osasuna eta ongizatean...** Horretaz gain, natura bizitzeko, zaintzeko eta maitatzeko bertan bizi beharra dugu eta zaindu).

2030 BASO MAGIKOA (Naturgunea biziberritu)

Ikastetxeko jolasgunea eraldatzetik haratago doan proiektua planteatzen dugu Zumaien. Natur gune bat ikastetxeko egunerokoan txertatzea da gure proiektuaren oinarria, "BASO MAGIKOA" egitea. Gure haur, gazte, familia eta herritarrei inguru naturalarekin kontaktua gehitzea bideratu nahi dugu proiektu honekin eta prozesu parte-hartzaile aberats baten bitartez, denon artean pentsatu, bideratu eta eginaz.

Basoarekin harreman zuzenak hainbat abantaila eskaintzen ditu: natura ikusi, ukitu, usaindu, probatu eta esploratu. Basoan, naturan, egunerokotasunean ematen diren aldaketak ikusteko aukera dago: loreak nola doazen aldatzen (hazi, loratu, fruitua heldu, hostoa galdu), urtaropak, naturak duen bilakaera... Basoak ikastetxeko lau paretetatik atera eta inguruko natur-gunera hurbiltzeko aukera eskaintzen du.



Momentu honetan gizarte bezala ditugun eronkei erantzuteko Naturgune hau ikasgune bihurtzea dugu helburu. Haur eta gazteak egunero bertan egon eta espazioan ikasi eta espazioarengatik ikas dezaten.

ERLAUNTZA – HAUSNARKETARAKO ESPAZIOA


Esperientziak aurkezteko, partekatzeko edo lantzeko lekua izatea nahi dugu 2030 BASO MAGIKOA. Horretarako, gune natural bat zaindu eta bestea berreskuratzeaz gain, ikasle eta erakundeak elkartzeko bilgunea sortuko da: anfiteatroak, domo geodesiko estalia, mahaiaik...

Eguraldi txarra izan arren, gune naturalean lanketak egiteko aukera bideratuko dugu espazio estalian. Bertako zuhaitz eta zelaietan barneratuko den espazio bat sortu nahi dugu. Ikasleekin energia berriztagarrien inguruko proiektuak garatu, izaten ditugun esperientzien erakusketak jarri, erakunde ezberdinekin elkarlana bideratu, lanketa ezberdinak bideratu instituzio ezberdinekin, hau da, **GIZARTEKO ERAGILE EZBERDINEN ARTEKO SARETZE BAT BIDERATU**.

Kanpo espazioan 150 pertsona inguru biltzeko bilgune ireki bat antolatu da eta eguraldi txarra izanez gero, DOMO GEODESIKOA, AUDITORIOA (720 eserleku) eta beste bilgune batzuk

antolatu dira. Ekintza ezberdinak egin ahal izateko ezaugarri teknikoak beteko ditu (argia, bozgoragailuak... "jasangarritasuna" kontuan izango da guzti honetan).

Domoa, 10 metroko diametroa duen eta egur jasangarriz osatutako estruktura izango da. Gaietik, eguraldiari aurre egiteko, kristalez jantziko da. Hezkuntza komunitateko kide guztien artean osatuko da.



Espazioaren barnean, joku motorra bideratzeko lekuak, egoteko leku ezberdinak, aurkezpen edo elkartrukeko tamaina ezberdineko anfiteatroak, mahaia, zuhaitz eta lore mota ezberdinak landatu eta zaintzeko guneak (denon artean zainduak),.... Gune aberats ezberdinak planteatzen ditugu.



“2030 AGENDA GARATZEKO EUSKAL ERAGILEENTZAKO SORTU DEN ESPAZIO IREKIA DA 2030 BASO MAGIKOA”

Hamarkada honetan 2030 agendak duen garrantzia kontuan harturik, Baso magikoa eskolen arteko elkartruke eta esperientzien partekatzeko gune ere izatea planteatzen dugu.

Espazio guzti honetan egin daitezkeen ekintza osagarriak aberastu ditzakeen tamaina handiko auditorio bat dago ikastetxean bertan (BASO MAGIKOAREN ALBOAN). 720 eserleku, eszenatokia, zineko pantaila... (tamaina handiko kongresuak, aurkezpenak.... egiteko aukerarekin).

Laburbilduz, 2030 BASO MAGIKOA espazioa (berdeguneak, Erlauntza gunea, auditorioa...), gizarteko eragileen esku jartzen dugu. Guztion elkarlana sustatu eta gizarte eraldaketa bideratzeko helburuz.